

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DULANTZIKO UDALA

Behin betiko onespena ematea Dulantziko aisialdiko baratze ekologikoak kudeatzeko arautegiari

Udalbatzak, 2019ko martxoaren 7an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea Dulantziko aisialdiko baratze ekologikoak esleitzeko eta kudeatzeko arautegiaren aldaketari.

Agiria jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onartutzat jotzen da, honela idatzita:

Dulantziko aisialdiko baratze ekologikoak kudeatzeko arautegia

Dulantziko baratze ekologikoen programa da formazio eta ingurumen kontzientziazio tresna bat, zoru eta uren erabileraren eta tokiko espezieak babesteko planifikazio eta kudeaketa. Horretarako baratzezaintza ekologikoa sustatu nahi du hezkuntzaren esparruan, praktika jasangarri egokirako baratzeak sortuz.

Aisialdiko baratzezaintza hiriko biztanle askoren jarduera ludiko gero eta ugariagoa da, batik bat adinekoen kasuan; hori dela eta, Dulantziko populazioak erabiltzen dituen baratze txikia sustatzea proposatzen da, familia kontsumoari zuzendutako produktuak lortzeko.

Ekimen honen helburua da, era berean, udalerrian langabezia dauden auzokide, gazte, heldu, emakume eta gizonak laneratzeko autoikaskuntzako tresna eraginkorra izatea. Nekazaritza arloko jardueren bidezko autoenpleguaren bitartez egindako laneratzeko ere, eta proiektuaren jarraipena egitea funtsezkoa da.

Udalaren konpromisoa datza programarako sarbidea erraztean interesdun guztientzat; eta lursailak eskuratzeari gehitu behar zaio laborantzarako beharrezko zerbitzuetarako sarbidea. Zerbitzuaren erabiltzaileen aldetik, errespetatu beharra dago ingurumenari dagokion araudia, zentzua ematen baitiote programari eta auzoko komunitate baten barruan garatu beharreko ustiapenak direnez gero, ezinbestekoa da erabiltzaileen eskubide eta betebeharren araudi hau erabiltzea jardunbidea arautzeko.

1. artikulua. Helburuak

Proiektuaren helburua:

- Ingurune bat suspertzea eta landarediaren berreskuratzea ahalbidetzea.
- Hainbat kolektibori eta, batez ere, jasangarritasunaren eremuan lanean ari diren eta horren gaineko interesa duten auzokideei zuzendutako programa mota oro egin ahal izateko azpiegitura eta baliabideak izatea.
- Ahultasun egoeran dauden edo bazterkeria egoeran dauden kolektiboek kontsumo pertsonalerako elikagaiak lantzeko espazio arautua ematea.
- Adinekoen kolektiboari beren osasuna sustatuko duen eta, aldi berean, udalerrian jasangarritasunarekiko errespetua eta lana bultzatuko duen jarduera zuzentzea.
- Biodibertsitatea kontserbatzeko eta bertoko baratze ohiko espezieak berreskuratzekeko sentimendu positiboko balioak sustatzea.

- Udalerriko biztanleen artean bizitza jasangarriko ohiturak sustatzea, besteak beste, nekazaritza ekologikoa, ekomugikortasuna edo energien optimizazioa.

- Ingurumen hezkuntzari balioetan oinarritutako hezkuntzaren jatorrizko zentzua ematea, herritar arduratsuak hezten laguntzeko, jokabide zibikoak sustatzeko, parte hartze kolektiboko espazioak sortzeko eta hurbileneko ingurunearen eta, maila zabalagoan, gure planetaren egoera kontserbatzeko bizi estiloak sustatzeko.

Araudiaren helburua:

Araudi honen helburua da aisialdirako udal baratzeek osatzen dituzten lursailen erabilera eta aprobetxamendua arautzeko beharrezko baldintzak ezartzea, eta arautzea udaleko egoiliarrei dauden lursailak esleitzeko prozedura, baratzetako laborantza jarduera eta erabiltzaileen erantzukizuna arautzea.

2. artikulua. Aplikazio eremua

Araudiaren aplikazio eremu objektiboa aisialdirako baratze ekologikoak kokatu diren udal lursailen barneko eremua izango da.

Eremu subjektiboari dagokionez, araudi honetan jasotako arauak Dulantziko udalerriko eskubide eta izatezko egoiliar denei aplikatu ahal izango zaie, baldin eta eskubidea badute aisialdirako baratze ekologikoak erabiltzeko eta aprobetxatzeko eta esleipenerako Araudi honetako aurreikusitako baldintza guztiak betetzen baldin badituzte.

3. artikulua. Definizioak

a) Erabiltzailea: adjudikazioduna edo lizentziaren titularra: lagatzen den ondasuna erabiltzeko eta aprobetxatzeko eskubidea jasotzen duen pertsona fisikoa. Hemen egokitzen diren interesen arabera, aisialdirako baratz ekologikoaren lagapenaren onuraduna.

b) Fruituak: baratzearen erabileratik lortzen diren etekinak, hau da, lurraren landaketa eta lanketaren ondorioz lortutako elementuak, izan barazkiak, frutak, lekariak, etab.

c) Elementu komunak: baratzeak dauden udal lursailari dagozkion berezko elementuak, jabe bati baino gehiagori edo denei balio zaizkienak: pasabideak, hesiak, hodiak, tangak, muga piboteak, etab.

d) Erantzukizuna: baratzetako erabiltzaile bakoitzak bere erantzukizuna du: norbanako bakoitzak du erantzukizuna, erabiltzaile den lursailaren proportzioaren neurrian.

e) Baratze ekologikoa: norbanako batentzako lursaila, eta horren arabera ezartzen da erabiltzaile bakoitzaren erabilera eta aprobetxamendu eskubidea.

f) Lur zatia: Udal lur-eremua, baratz ekologikoak kokatzeko tokia, hain zuzen.

g) Familia unitatea: etxebizitza berean bizi diren eskubide eta izatezko kideen harremana.

4. artikulua. Udal eremu publikoko ondasunaren izaera. Lurzatiak, instalazioak eta lagatzen diren zerbitzuak

Lursailen jabetza udalarena denez, Udalak izango du horiek administratzeko eta zuzentzeko eskumena. Hori horrela, Udalak lurzati berrantolaketa eta banaketan aldaketak egiteko eskubidea du, bai eta azalera aldatzeko ere, egon daitezkeen gorabeheren aurrean. Baratze ekologikoak erabiltzeko lagapenak ez du inola ere esan nahi lursailaren jabetza eskualdatu denik, udalaren jabetzakoa izango baita beti.

Dulantziko Udalak baratze ekologikoak osatzen dituzten lursail zati guztiak lagatzen ditu, kasu bakoitzari dagokion zenbakiarekin, 1etik 13ra, araudi honi erantsitako planoan ageri den bezala, zuzeneko sarbidearekin eta ureztatzeko hargunearekin.

Era berean, baratzen laborantzak behar duen garaztaketa-ur zerbitzua lagatzen da; lehen tarte batean debaldekoa izango da, baina erabilera neurtua izango da eta bereziki beharrezkoa tokiko landaketetarako. Hori dela eta, lurzati bakoitzak ur kontagailua izango du; udal zerbitzuek, hiru hilean behin, irakurri egingo dituzte kontagailuak, eta lurzati bakoitzerako hiruhilekoan behar baino gehiago erabilitako uraren faktura igorriko zaio erabiltzaile bakoitzari.

5. artikulua. Lagapen epea

Lagapen epea hiru urtekoa izango da, baldin eta hura azkendu aurretik araudi honetan aurreikusitako azkentze klausularen batean huts egiten ez bada. Udalak, eskariaren arabera, epe hori aldatzeko eskubidea du.

Adjudikaziodunak, lizentzia amaitu eta hilabeteko epera, baratzea garbi utzi beharko du, hurrengo adjudikaziodunak lantzeko beharrezko egokitasunez.

6. artikulua. Erabilera printzipio orokorrak

1. Kontserbazio eta mantentze printzipioa: aisialdirako baratze ekologikoen erabiltzailearen betekizun nagusia izango da lagatzen zaion lursailaren kontserbazioa eta mantentze egokia, behar bezala jardunez erabiltzerakoan, eta horien osasun egoera, apaindura eta landaketa mantenduz.

2. Errespetu printzipioa instalazioen erabileran: aisialdirako baratze ekologikoa lagatzen zaion pertsona orok ahalegina egin beharko du gainerakoei eragozpen, kalte edo minik ez eragiteko.

3. Ez komertziagarritasun printzipioa: baratzeen lagapen hartzaile guztiek debekatuta izango dute laborantzak erabiltzea xede komertzialerako edo ustiapen ekonomikorako.

4. Autohornikuntza printzipioa: lurraren fruituak, baratzeen laborantzak emanak, soilik kontsumitu ahal izango dituzte familia unitateek, etekin ekonomikorik jasotzeko aukerarik izan gabe.

5. Ingurumen prebentziorako printzipioa: baratzeen erabileraren onuradunek ez dituzte erabiliko lurrari kalte larria ekar diezaioketen eta hura eta gainazaleko eta lurrazpiko urak kutsa ditzaketan ongari eta landare osasunerako produktuak, lursailaren landaketa ekologikoari buruzko araudi honetan zehatz ezarri bezala.

7. artikulua. Araubide aplikagarria eta arautegia

Aisiarako udal baratze horien erabilera jabari publikoko ondasunen baterako erabilera berezi gisa kalifikatu behar da, tokiko korporazioen ondasunei buruzko araudiaren 75.1.b) artikulua ezartzen duenez; beraz, lizentzia beharko du. Agindu honen 2. apartatuak ezartzen du lizentziak zuzenean emango direla, baina horien kopurua mugatuz gero, kasu honetan bezala, lurzati kopurua mugatua delako, lizitazio prozesuaren bidez eman beharko direla eta, hori hala egiterik ez balego, baimendu guztiek baldintza berak bete behar dituztelako –kasu honetan gerta daitekeen bezala– zozketa bidez emango dela. Ondorioz, aisiarako udal baratzeak ustiatzeko baimena lizitazio bidez esleitu beharko da, eskatzaile guztien artean; izan ere, araudi honetan ezarritako lehentasunezko baldintza guztiak bete beharko dituzte.

Beraz, jabari publikoko ondasunak erabiltzeko baimena izanik, jendaurrean jartzeko epe bat ezarriko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 86.1 artikuluan ezarritako baldintzei jarraiki.

Aisialdirako baratze ekologikoen esleipen, jabetza eta erabilerari aplikatuko zaion araubidea Araudi honetan aurreikusitakoa izango da.

Subsidiarioki, honako araudi hauetan jasotako arauak aplikatuko dira:

- 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Administrazio Publikoen Ondarearena (I. kapitulua, IV. titulua).

- Toki Erakundearen Ondasunen Arautegia.

8. artikulua. Lagapen titulua

Lizentziak ematen duen baratzea erabiltzeko eskubidea pertsonala eta besterenezina da, eta lagapenerako ezarritako baldintzak betetzen diren bitartean balioko du soilik. Erabiltzaileak ezingo du, inolaz ere, lizentziaren bidez baimendutako erabileratik eratorritako eskubideak laga, kargatu edo kostu bidez edo doan eduki, betiere horren eta baratzean aplikatzen diren erabileren eta produktuen erantzule izango dela.

Eskubide horiek ezingo zaizkio beste inori eman edozein kasutan. Hala ere, pertsona bat izendatu ahalko da lagapen hartzailea ez dagoenean ordezkatzeko edo behar bezala arrazoituta motiboengatik, baldin eta lagapen hartzaileak hala eskatzen badu, eta aldi baterako, betiere (sekula ez hirurogei egun baino gehiago). Lagapen hartzailea hiltzen bada edo ezintasun fisiko edo psikiko iraunkorreko egoeran geratzen bada jardueraren beraren zereginetan esku hartzeko, baratzearen erabilera lizentzia desegingo da.

Lagatako lizentziaren titulua "prekario" motatakoa izango da, eta Udalak, interes publikoko kausa justifikatuen bitartez, edozein unetan lizentzia kendu ahalko dio edozein erabiltzaileri, Udalak inolako kalte-ordainik emateko eskubiderik izan gabe.

Interes publikoko kausa justifikatu izan daitezke, "aisialdirako baratze ekologikoak" programarekin bateragarria edo ordezkatzaileria den beste edozein udal programaren onarpena, edo Udalak edo beste edozein herri administrazioak hiri edo azpiegituren garapenerako beste edozein plan onartzea, baldin eta zuzkidura publikorik ezarri beharko balitz aisialdirako baratze ekologikoen kokapen berean.

Kasu horietan, aipatutako Planaren onarpenak gizarte intereseko edo erabilera publikoko aitortpen bat izango du, eskatzen diren lursailen erabilerarentzako tituluen balioa indargabetuko duena, eta emandako baimenaren zati baten edo erabateko galera ekar lezakete, inolako kalte ordainik jasotzeko eskubiderik izan gabe.

9. artikulua. Baratze programaren funtzionamendurako argibideak

"Alkateak argibideak agindu ahal izango ditu aisialdirako baratze ekologikoen programaren jardueren alderdi orokor zein zehatzei buruz, formak egituratzeko aholkuak, ordutegiak, laborantza motak, etab... baratzeak erabiltzaileek derrigorrez bete beharko dituzten izaera orokor zein berezikoak, baita Alkatetzak, Zinegotzi delegatuak edo Udaleko pertsonal arduradunak erabiltzaileei egiten dizkieten ahozko ohartarazpenak ere; horiek ere derrigorrez bete beharko dira."

10. artikulua. Onuraduna izateko baldintzak

Aisiarako baratze ekologikoen okupaziorako lizentzien onuradun izan ahalko dira esleitzeko deialdia argitaratu baino urtebete lehenagotik, gutxienez, Dulantzi udalerrian erroldatuta daudenak eta, gainera, honako baldintza hauek betetzen dituztenak:

a) Aisialdirako baratze ekologikoan garatuko diren nekazaritza eta laborantza jarduerak egiteko fisikoki gai izatea. Adingabeen eskabideek guraso edo tutoreen abala izan beharko dute, eta adinez gorakoak izango du erantzukizuna, Araudi honen arabera.

b) Dulantziko Udalarekin zerga betebeharrak edo bestelakoak egunean izatea.

c) Eskatzaileak, haren bikotekideak edo familia unitateko beste kideren batek ez izatea jabetzan, alokatuta, norbaitek lagata edo erabiltzen aisialdiko baratze ekologikoetan dagoen beste lurzatirik.

d) Eskatzaileak, lehen mailako odoleko familiartekoei, ezkontideak edo famili unitatea osatzen dutenek landa izaerako beste lursail batzuk –nekazaritzako jardueretarako egokiak direnak– ez izatea, jabetzan, errentan, lagata edo erabilerarako, nonahi daudela ere.

e) Araudi honetan aurreikusitako arauen bat ez betetzeagatik aisialdirako baratze ekologikoen jabe izanda zehapen bat jaso ez izatea.

11. artikulua: Lizentziak esleitzeko prozedura

Aisialdirako baratze ekologikoen erabilera ahalbidetzen duten lizentziak emateko prozedura aplikagarria konkurrentzia erregimenean izango da, kontuan izanik lizentzia kopurua mugatua dela.

Prozedura hori ofizios hasiko du Udalak, tokiko organo eskudunak horretarako emandako ebazpenaren ondoren; bertan, aisiarako baratze ekologikoak okupatzeko lizentziak emateko deialdia jasoko da. Deialdi hori Udaletxeko Ediktuen Panelean argitaratu beharko da, baita Udalaren webgunean ere.

Aisiarako baratze ekologikoak esleitzeko interesdunak eskabidea aurkeztu beharko du.

Eskabidearekin bat aurkeztu beharko dira, normalizatutako ereduak exijitzen dituen dokumentuez gain, honako dokumentuak:

- a) Eskatzailearen NANaren eta hura legez ordezkutzen duen dokumentuaren fotokopia.
- b) Eskatzaileak eskatzen duen baratzea landatzeko gaitasuna eta egokimena duela, osasunerako kalterik ekarri gabe, adierazten duen zinpeko aitortpena.
- c) Araudi honen 10. artikuluan ezarritako eskakizunak betetzen direla jasotzen duen zinpeko aitortpena.
- d) Udalak ofizios egiaztatuko du erroldatzea lau urtetik gorakoa dela, arau hausterik eza eta Udalarekiko zerga betebeharrak guztien berri izan eta behar bezala betetzen dituela eskatzaileak.

12. artikulua. Eskumena eta prozedura

Alkatetzak ebatziko du lizentziak emateko prozedura.

Gutxienez hamar eguneko epea ezarriko da instantziak aurkezteko. Jarraian, onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda onartuko da, eta iragarki taulan argitaratuko da. Interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahalko dituzte, gehienez bost egun balioduneko epean. Epe hori amaituta eta jasotako erreklamazioak ebatzi ondoren, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda jasotzen duen ebazpena emango da, eta udalaren iragarki taulan argitaratuko da.

13. artikulua. Lizentzien esleipena eta ordezkien zerrenda

Lizentziak lau urterik behin esleituko dira. Dena den, urtero esleituko dira borondatez edo ez betetzeen ondorioz hutsik geratu diren lurzatiak. Beraz, urtero, urtarrilean, hutsik dauden lurzatiak zenbatuko dira, eta martxoan edo apirilean esleituko. Horiek horrela, erabiltzaileek, urtero, urtarrilean eta otsailean, lurzati horiek eskatu ahal izango dituzte.

Esleipena zozketa bidez egingo da eskatzaile guztien artean; erreserbarako zerrenda ere egingo da, emandako baimenen batean bajaren bat badago ere. Hurrengo esleipenetan, erabiltzaileak aldatuz joan daitezten, aurreko esleipenean esleipendun izan direnak ez dira lehen zozketan sartuko eta, baratze beste eskatzaile baino ez badaude, sartuko dira zozketan. Zozketan parte hartzeko, lehenengo jakinarazpenik jaso ez duten esleipendunak sartuko dira eta, gero, larritasunaren eta haiei emandako erantzunaren arabera jakinarazpenak jaso dituzten pertsonak.

Berriro lurzati baten esleipendun izanez gero, salbu eta lurzatiaren esleipenean sartzeko berriazko eskaera egin, aldeztu aurretik esleituta zeukan lurzatiaren esleitu zaio.

Adjudikaziodunei ematen zaien lizentziak argi azaldu beharko ditu honakoak: xedea, baratzearen definizioa eta kokapena, erabiltzailearen eskubide eta betebeharrak eta lizentziaren indarraldia.

Baratzen esleipenik izan ez dutenek ordezkarien zerrenda osatuko dute, egindako zozketaren arabera, eta lizentziaren indarraldi osoan zehar bajak betetzeko erabiliko da zerrenda hori, uko egin edo borondatez edo nahitaez aisiarako baratze ekologikoen erabilerarako emandako okupazio lizentzien bidez eskuratutako eskubideak galdu diren kasuetarako; kasu horietan, hurrengo hautagaiari deituko zaio, aipatutako zerrenda horren hurrenkerari jarraiki, lizentziaren indarraldiaren barruan eta landaketarako aldi emankorrerako.

Baratzaren erabilera baimentzen duen lizentzia esleitu ondoren, esleipendunak urteko kuotaren zenbatekoa autolikidatu beharko du eta fidantzari dagokion zenbatekoa eman beharko du esleitutako lizentzia jasotzeko. Fidantza urteko kontratuaren epea igaro ondoren itzuliko da, denboraldi berrirako beste baratze baten adjudikazioduna izan ezean.

14. artikulua. Lizentzien denborazkotasuna

1. Aisiarako baratze ekologikoak dauden herri jabariaren erabilerarako gaitasuna ematen duten lizentziak 4 urtekoak izango dira, eta epe hori ezingo da luzatu.

2. Kasu bakoitzean eskumena duen tokiko organoak indargabetu ahal izango ditu aipatutako lizentziak, emakida ahalbidetu zuten baldintzak edo adjudikaziodunei dagozkien betebeharrak betetzen ez badira; horiek guztiak Araudi honetan azaltzen dira eta bat datoz zehaztutako prozedurarekin.

15. artikulua. Transmigarritasuna eta lizentzien iraungitzea

Aisialdirako baratze ekologikoak erabiltzeko eskubidea ematen duten lizentziak:

a) Ezingo zaizkio beste inori transmititu.

b) Epea betetzean iraungiko dira.

c) Bertan behera geldituko dira edo kenduko dira:

- Adostuta.

- Ebazpen judizialen bitartez.

- Emakidadunak uko egitearen bidez.

- Araudi honetan edo dagokion lizentzia ematen duen ebazpenean bildutako betekizun eta xedapenak ez betetzeagatik, interesdunari jakinaraziz espedientearen tramitazioa egin ondoren.

I. Titulua

Erabilera eta aprobetxamendurako baldintzak

16. artikulua. Erabilerarako baldintza orokorrak

1. Aisialdiko baratze ekologikoen esleipendunak behartuta daude baratzeak beraiek erabiltzera. Nahi badute, doan partekatu ahal izango dute erabilera hori beste batzuekin; baina, gehienez ere, bi familia unitatek erabili ahal izango dute lurzati bera. Dena den, lurzatiaren titularra izango da araudi honetan jasotako betebeharren erantzule, eta ezin izango du lurzatiaren erabilera partekatuaren truke inongo laguntza ekonomiko, material edo bestelakorik. Hona hemen lurzatiaren titularrek, lurzatiaren erabilera eta gozamina dela eta, bete beharrekoak:

- Arau orokor gisa, baratzen erabilerari buruzko Araudi honetan jasotako alderdi guztiak errespetatu beharko dituzte.

- Baratzeak erabiltzea inguruan ohikoak edo berezkoak diren barazkien espezieen laborantza eta landaketarako: uhaza, tomatea, kipula, porrua, kalabaza txikia, indaba... baita inguruan ohikoak diren apainketarako landare eta loreak, aromatikoak eta sendabelarrak, zaintza berezia edo berotegien instalazioa behar duten gainerakoak baztertuz.

- Landaketa ekologikoki egin beharko da, eta gehieneko garaiera 175 cm-koa izango da. Zuhaitz edo zuhaixken landaketa debekatuta dago, bai eta edozein espezie aloktonorera ere, eta landare psikotropikoena edo legez debekatutakoena.

- Baratzeetatik lortutako produktuak ezingo dira saldu, araudi honetan famili kontsumorako erabiliko direla ezarri baita.

- Hondakinak hurbil dagoen birziklapenerako irla ekologiko batean botako dira; horrela, lurzatiak ez du hondakinik bilduko. Lagapen hartzailearen betebeharra izango da baterako erabilerarako egingo den konpostarako eta hura banatzeko egingo den egutegia ezartzen laguntzea.

- Berariaz debekatuta dago produktu kimikoak erabiltzea, besteak beste, ongarriak, herbizidak, fungizidak, intsektizidak, akarazidak, nematizidak, helizidak, arratoizidak, bakerizidak, hegaztien uxagarriak, eta abar. Nekazaritza ekologikoaren teknikan oinarritutako estrategiak baino ezingo dira erabili, besteak beste: labore txandaketak eta alternatibak, izurrien harra-
pari naturalen erabilera, aldarazle naturalen erabilera, intsektuen erakargarrien erabilera eta nekazaritza ekologikoan onartutako produktu fitosanitarioen erabilera.

- Ezin da faunarako harrapatze ez selektiboen tranparik edo metodorik erabili, ez eta substantzia pozoitsuak dituzten edo ez dituzten amuak jarri ere.

- Baratzeetan ezin da animaliarik hazi, ez eta zuhaitzik edo zuhaixkarik landatu ere, heskai gisa edo ondoko baratzeei eguzkia kenduko dienik.

- Debekatuta dago baratzea egoitza gisa erabiltzea, aldi baterako izan edo iraunkor izan.

- Segurtasunagatik eta indarrean dagoen araudiarekin bat, debekatuta dago, baratzeen barruti guztian, sua erabiltzea, bai barbakoa eramangarrien bidez, bai bestelako instalazioen bidez.

- Une oro, lagapen hartzaileek errespetuz jardungo dute, bai ingurumenarekin, bai baratzeetako auzokoekin.

- Beti erabili beharko da ura arduratsu, bai ureztatzeko dena, bai edatekoa dena; halaber, arduratsu erabili beharko dira ekoizpen prozesuko baliabide naturalak.

- Debekatuta dago baloiarekin jolastea baratzeen barrutian edo jolaserako edo aisiarako jarduerak egitea, baratzeen berezko erabileretatik kanpo.

- Baratzeetako zurkaiak eta bertan erabilitako materialek estetikoki bateragarriak izan beharko dute inguruarekin.

- Lagapen hartzaile bakoitzak berdin mantendu beharko ditu lurzatiak urtaro guztietan. Baratze bat abandonatuta dagoela adituko da, argi dagoenean ez dela zaintzen, laboreak bertan behera utzita daudenean, edo azaleraren ehuneko 50 basa belarrez beteta dagoenean; baita izurrite zein parasito asko egotea arriskutsua denean ere lurzati mugakideetako laboreentzat.

Hori horrela, mantentzea lurzati osoan egin behar da, ez bakarrik azalera osoaren zati batean. Mantentzean, halaber, baratze bakoitzaren bidearen zati proportzionalaren eta baterako guneen garbiketa ere sartzen da; beraz, azken batean, instalazio guztiek egon behar dute garbi.

- Edozein objektu, hondakin edo zabor motaren presentzia saihestu behar da baratzerako den lursailean. Nolabaiteko garbiketa egotea guztion ardura da; portaera arduratsuak dakar zaborra kentzea eta kanpoko edukiontzira botatzea, egunero.

- Pasilloetarako gordetako espazioa libre mantendu behar da; horrela, erabiltzaile bakoitzaren gauzek baratzearen barruan egon behar dute.

- Hirugarrenak baratzeetan egoteko, lurzatiaren lagapen hartzailearekin batera joan beharko dute. Salbuespen gisa, lagapen hartzaileek baimena eman ahalko du beste pertsona bat bere lurzatiara sartzeko, urtean gehienez ere 60 egun naturalez, behar bezala justifikatutako kausa medikoagatik.

- Udalak ez du erantzukizunik izango erabiltzaileek jardueraren ondorioz jasan edo sor ditzaketen kalteengatik, ez eta hirugarrenei sortzen zaizkien kalteengatik.
- Lagapen eta erabilera epea amaitzean, lagatzean edo indargabetzean, armairuek eta lurzatiek garbi egon beharko dute eta norberaren tresnarik gabe. Hala izan ezean, zeregin hori Udalak hartuko du bere gain, baina horrek ez du ordainketarik ekarriko.
- Partzelaren erabileraren lagapena indargabetu dela jakinaraztean, ordura arte emakidatutako gisa erabili duen pertsonak zazpi egun natural izango ditu egon litezkeen laboreak eta instalazioak erretiratzeko. Epe hori igarotakoan, organo kudeatzaileak lurzattia garbituko du eta erabiltzaileak ezingo du erreklamaziorik egin.
- Udalak ez du erantzukizunik izango baratzeetan edo horiek landatzen dituztenengan eragina izan dezaketen ebasketa, lapurreta edo kaltea dakarten beste ekintzengatik, ez eta lurzatiek kontrako fenomeno meteorologikoen ondorioz jasan ditzaketen kalteengatik –besteak beste, txingorrek edo uholdeek eragindakoak–.
- Udalak ez du erantzukizunik izango erabiltzaileek jardueraren ondorioz jasan edo sor ditzaketen kalteengatik, ez eta hirugarrenei sortzen zaizkien kalteengatik.
- Debehatuta dago txakurrak solte edukitzea baratzeetan, auzokoei eragozpenik ez eragiteko.
- Lagapen hartzaileek beren baratzeetan eta ureztatze gaitzatutako kaltetutako edo matxuratuak ondasanak edo ekipoak konpondu edo aldatu beharko dituzte. Baterako guneetako konponketa txikiak instalazioen erabilera desegokiaren ondoriozkoak badira, udal langileek konponduko dituzte eta horiengatik ordaindu beharreko kopurua jasanaraziko die Udalak erabiltzaileei.
- Erabiltzeko lagatzen diren instalazioak eskuratutako baldintza berdinetan mantentzea, behar bezala zainduz. Lursailak garbi egon beharko du uneoro, bertan dauden landaketei kalterik eragin gabe.
- Erabilera kontzeptuan jasotzen diren ondasunak ezin hobeto mantendu eta zaintzea. Udalari jakinarazi beharko diote baratze edo instalazioei eragiten dien edozein gertakari, beste erabiltzaile batzuek zein kanpoko pertsonak, horien erabileraren kanpokoek, eraginak izanda ere.
- Udalari baratzearen jabetza itzultzea, lizentziaren epea amaitzen denean, adjudikaziodun pertsona berriek erabiltzeko egokitasun osoz; edo, bestela, lizentziari uko egin edo bertan behera utziz gero, erabakia gauzatzen den unean.
- Hasieran lagatzen den lursailaren egitura eta azalera bera mantentzea, Udalak ezarritako mugak aldatzeko aukerarik izan gabe, ezta Udalean eskumena duen organoak alde aurretik baimendutako obrarik edo itxiturarik ere. Era berean, titularrak ezingo du instalatu lurraren laborantzarako zehazki ez diren bestelako elementuak: barbakoak, etxolak, biltegiak, etab.
- Baratzeke beste erabiltzaileei eragozpenik ez eragitea, kalterik edo minik eragin lezakeen tramankulu, mekanismo edo bestelako sistemen erabilera saihestuz.
- Laborantzan, garbiketan edo baratzeke gainerako zereginetan erabiltzeko substantzien erabilera saihestea, baldin eta kalterik eragin badiezaioke zoruari.
- Animalien presentzia saihestea baratzeetan.
- Bertan behera ez uztea baratzeen erabilera edo laborantza, batik bat fruituak bildu beharko dira baldin eta kiratsa sorrarazten baldin badute, lursaila zikintzen badute, edo paisaiari eta inguruari kalte egiten badiote, izan landarean zein lurrean daudelako.
- Lurzatiak atontzeko, mando mekanikoa eta sasiak kentzeko makina erabiltzea baimentzen da.
- Baratzeetan materialak edo tresnak biltzea saihestea, ez baldin badira ezinbestekoak lurrraren laborantzarako.

- Baratzean egin beharreko lanetarako beharrezkoak diren gaitasunak eta baldintza fisikoak mantentzea. Alde horretatik, erabiltzaileak berehala jakinarazi beharko dio Udalari gaixotasun edo patologia larriren bat hartzen baldin badu, hilabete baino gehiagoko ezgaitasuna eragingo baldin badio.

- Ezingo du musika aparailurik erabili baratzeke egonaldia alaitzeko laborantzian dabilen bi-tartean, baldin eta bolumenarengatik inguruko baratzetako beste erabiltzaileei edo auzokideren bati eragozpenik eragiten badio.

2. Lizentziaren titularrak aurreko atalean adierazitako baldintzetako bat betetzen ez badu, Udalak lizentzia kendu ahal izango dio.

3. Era berean, erabiltzaileek eurek egunero-egunero zainduko dute baratzearen kontserbazioa, konponketa, instalazioen mantentzea eta erabileraren egokitasuna, eta haien erantzukizuna izango da azpiegituren kontserbazioa, konponketa, instalazioen mantentzea eta erabileraren egokitasuna, baldin eta ez badira ondo erabiltzen.

4. Adjudikaziodunek, halaber, esleipen aldiaren hasieran antolatuko den nekazaritzako eta baratzezaintza ekologikoko jardunbide egokiei buruzko ikastaro teorikora eta praktikora joan beharko dute.

17. artikulua. Lurraren aprobetxamendua

Lagapenaren titularra behartuta dago lagatako baratzea lantzerantz; nekazari on batek bezala jardun beharko du eta lanabes egokiak erabili beharko ditu, eta, aurreko artikuluan adierazitakoari kalterik eragin gabe, baratzeen aprobetxamenduak arau hauek bete beharko ditu:

- Ez da onartuko lurra, zorua edo azpiko lurra narriatzeko arriskua duten landareak edo barazkiak landatzea.

- Era berean, erabiltzaileak ezingo du espezie exotikorik edo psikotropikorik landatu, ez eta legeak baimentzen ez duen landaketako edo ereintzako bestelakorik ere.

- Bestalde, ezin dira sasoikoak ez diren espezieak landatu; gehienez zortzi hilabeteko epean uzta jasotzeko landareek izan beharko dute, eta ezingo dira landatu espezie zuhaitziarrak, ezta fruta arbolak ere.

- Ezin da landatu landare alturik, baldin eta horiek itzala ematen badiete ondoko baratzeei, besteak beste, ekiloreak edo 175 zentrimetrotik gora hartzen duten landareak.

- Ezingo dira instalatu negutegiak, kutxak, iltzatutako elementuak, etxolak, txorimaloak, arranpaloak edo panpinak.

- Debehatuta dago baratzeke laborantzaren zatiak edo belardiak erretzea, baita aisialdirako baratze ekologikoen eremuaren barnean inolako surik piztea ere.

- Ezin da likidorik isuri besteen baratzetan, ezta sastraken edo garbiketaren hondakinak bertan edo baratzean utzi ere.

- Ezin da elementurik instalatu baldin eta paisaia narriatzen badute edo dauden inhalazioak aldatzen badituzte, izan bidoiak, biltegi osagarriak, txapak, banatzaileak edo antzekoak.

- Ezin da eraikuntzarik egin lursailetan, ezta itzalperik edo zintzilikatzeke tresnarik edo inguruaren itxura alda dezakeen bestelako elementurik erantsi ere.

- Ein dira txabola, fatxada edo barrualdeen egiturak aldatu (zulagailua erabiltzea, margotzea, iltzeak jartzea, etab.).

- Ezingo dira erabili zepoak, tranpak, sokak, edo perdigoiz zein balin eskopetarik, gomazko jaurtigailurik edo bestelako tresna edo tramankulurik, mekaniko zein natural, lurreko sarbidea saihesteko edozein hegazti, animalia edo pertsonari, txoriei sarbidea eragozten dieten sare babesleak salbu.

- Ezin da lurzattia itxi inolako hesiekin (harri, egur, adreilu, bloke zein bestelako eraikuntzarako elementu mugatzaileekin) baratzea, bere ertzak edo mugak itxi, markatu edo mugatzeko, Udalak horretarako aukeratu dituenetatik aparte.

- Ezingo dira lurtean metatu pinuetako hosto sikuak edo ugerrak edo lursailaren lehorketa saihesteko edo atzeratzeko bestelako materialik edo produkturik.

- Ezingo da ibilgailurik sartu, haurrak eta ezinduek eramateko aukiak eta pertsona emakidun mugikortasuna erraztekoak izan ezik.

- Ezingo dira eraman animaliak baratzeetako barrutira.

2. Lizenziaren titularrak aurreko arauetan adierazitako baldintzetako bat betetzen ez badu, Udalak lizentzia kendu ahal izango dio.

18. artikulua. Esleipendunaren ahalmenak

Hauetako izango dira erabilera komun berezia jasotzeko lizenziaren esleipen prozeduran adjudikazioduna izan den pertsonaren ahalmenak: aisialdirako baratze ekologikoa osatzen duten lurrak eta gainerako elementuen jabetza izatea, erabiltzaile kontzeptuan, eta erabiltzaileei dagokien aprobetxamendua izango da baratzeetan landu dituzten landareei espezieen etekinak jasotzea, hau da, lurrotatik lortutako fruituak.

1. Gaitasun horiek zehazten dira lurtearen erabilera eta aprobetxamenduan: lurtearen laborantza, landatzea eta erabilerak, zaintzea eta mantentzea, ureztatzea, ongarriztatzea, horretarako tresna zehatzak erabiltzea, fruituak biltzea, eta barnean uler daitezkeen gainerako gaitasun guztiak, lagatzen den ondasunaren helburu eta izaerari jarraiki.

2. Artikulu honetan adierazitako gaitasunak lizenziaren titularrari baino ez dagozkio, eta ez dago onartuta beste pertsona batzuek laborantzan laguntzea titularrari, ezta beste erabiltzaileek eskaini diezaioketen laguntza ere.

3. Ahalmen horiek iraungi egingo dira erabilerarako lagapenaren epea amaitzen denean, edo berari ahalbidetzen duen lizentzia kentzen denean, Araudi honetan jasotako kausen arabera.

4. Inola ere ez da onartuko baratzeen gaineko jabetza eskubidea transmiti daitekeenik, eskaera bidezko izaera kontuan hartuta beti ere; baratzeak, euren eremu publikoko izaera kontuan hartuta, enbargaezinak, aldaezinak eta preskribiezinak dira.

19. artikulua. Ordutegiak

Lizenzien onuradunei dagokien erabilera eguneko ordutegietan egin beharko dira, urtaro guztietan.

20. artikulua. Nekazaritza ekologikoa

Baratzeen erabileraren onuradunek ez dute erabiliko lurteari, gainazaleko urei eta akuiferoei kalte larrikeria eragin ahal den produktu fitosanitariorik edo atmosferara partikula desagoririk igor dezaketarik, kalteak eraginez inguruko faunari eta florari edo pertsonari, ingurumeneko jardunbide jasagarrietan jaso bezala. Era berean, ezingo dira erabili zorua kutsa dezaketen bestelako garbiketa produktuak.

Erabat debekatuta dago, bestalde, lurtearen gainean kalte larria eragin dezaketen produktu kutsakorrik botatzea. Ahal den neurrian, sendabide natural erabiliko dira izurri eta gaitzen aurka eta alde aurretik usteldutako ongari organikoak erabiliko dira artifizialen ordez, hala nola, konposta, simaurra, hondakin organikoak...

Jarduera hau laborantza metodo tradizionalekin lotu nahian, baina ingurumenaz modu zientifikoan arduratzen diren ezagutza eta teknika berriei uko egin gabe, landu beharreko nekazaritza ekologikoa izango da.

Beraz, ez da produktu kimikorik erabiliko (produktu "kimikoak" produktu "natural"en aldean dira produktu naturaletatik tratamendu kimikoaren, landare materialen edo animalien ehunaren bidez, tratamendu eta sintesi kimikoarekin bitartez -zati batean izan ala ez- lortutako produktuak (sinpleak edo konplexuak [A. Dehovel-en definizioa]).

Gauzak horrela ulertzeko moduarekin bat, aisialdirako baratze ekologikoen erabileran nekazaritza ekologikoaren arau hauek kontuan izango dira:

1) Ongarriei dagokienez:

• Debekatuta daude:

a) Sintesiko ongarri organiko guztiak (Españiar estatuan saltzen diren guztiak) eta produktu kutsatuekin egindako konpostak (lastoak, simaurrak, pestizida eta herbizidekin tratatutako belar eta ongarri organikoak).

b) Prozedura kimikoen bitartez lortutako ongarri mineral guztiak (nitrogenatuak, fostatatuak, potasikoak, magnesikoak, kare bizia, etab).

• Onartuta daude:

a) Zizareen humusetik eratorritako ongarriak, konpostatutako simaurrak (konpostajea hartidura aerobikoaren prozesutzat ulertuta), ongarri berdeak eta ongi deskonposatutako uzten hondarrak, baita kutsatu gabeko hondakinekin egindako konpostak ere.

b) Jatorri naturaleko ongarri mineralak (txikitutako fosfato naturalak, silizeen hautsak, kareharri txikituak, dolomitak, etab.).

2) Tratamendu fitosanitarioei dagokionez:

• Debekatuta dago:

a) Intsektizida, fungizida eta akarizida eta sintesi kimikotik eratorritako beste produktu guztien erabilera.

• Onartuta daude:

a) Substantzia natural mineral, begetal edo animalienetan oinarrituta sortutako fungizidak (Bordeleko salda, Borgoñako salda, etab.).

b) Landareekin egindako produktuak (beratzeak, infusioak, egosketak, gernuak).

3) "Belar txarrei" dagokienez:

• Debekatuta dago:

a) Debekatuta dago edozein sintesiko herbizida kimiko erabiltzea.

• Onartuta dago:

a) Onartuta dago belar lehiakorren kontrolerako metodo biologikoak erabiltzea (bigungarria, eskuzko jorraia edo erdi eskuzkoa, zapalda sakoneko laborantza).

4) Hazi eta landareei dagokienez:

• Komeni da:

a) Nekazaritza biologikotik eratorritako barazki, sustrai, erraboil, tuberkulu eta hazien erabilera.

b) Produktu horien erabilera, ohiko laborantzetatik etorri arren, produktu kimiko sintetikoekin landu ez baldin badituzte.

Garatu beharreko laborantza ekologikoak ekoizpen eta kontsumo jasangarrien praktiken eredu izan behar du.

21. artikulua. Ureztatzeari buruzko baldintzak

1. Baratzeen erabileraren titularrek aisialdirako baratze ekologikoetan kokatu diren instalazioen barruan eskura dituzten ureztatze baliabideak erabili behar dituzte; baliabideok ureztatze ur sarrera bat dira, baratze bakoitzerako.

2. Ezingo dira erabili daudenak ez diren beste elementu batzuk, eta soilik ureztatu ahal izango dira lurrak hodian bidez eta zuzenean zorura, ildora edo tantaka egin beharko da; debekatuta dago beraz ihinztargailuak edo inguruko baratzeak inbadi ditzaketen beste baliabide batzuk.

3. Edozein kasutan, saihestu egingo da ur sarrera zabalik uztea, ureztatze ura xahutzea edo gaizki erabiltzea, edo uraren kontsumo anormala eragiten duten ureztatze metodoak erabiltzea; aurkako jarrerak lizentzia galtzea ekar lezake.

4. Debekatuta dago ura beste nonbaitetik ekartzea, horretarako prestatu ez den leku batetik, baratzeak ureztatze.

5. Lagapen hartzaileek ur kontsumoa ordaindu beharko dute. Unitatea/m³ aplikatuko zaie, hargune orokorraren irakurketaren ondoriozkoa. Kontsumoa 0,16 m³/m²/hila baino gutxiagokoa bada, aplikatuko den tarifa izango da udal ordenantzan ur zerbitzua emateagatik ezarritakoa. 0,24 m³/m²/hila arteko kontsumoetarako, ehuneko 50eko errenergia aplikatuko da tarifa. 0,24 m³/m²/hila gainditzen baditu, lehenengo aldiz ehuneko 100eko errenergia izango du tarifa, ur zuzkidura itxiko zaio hilabetez, eta, kontsumo hori hiru aldiz errepikatuz gero, baratzerako eskubidea kenduko zaio.

6. Udalak eskumena du ureztatze aldiak eta aplikatuko diren tarifa diferentzialak egokitze, bai eta ureztatze erabat eteteke ere, baldin eta urteko baldintza meteorologikoen giza-kiaren kontsumoa arriskuan jartzen badute.

22. artikulua. Hondakinen trataera

Baratzeen erabiltzaileen erantzukizuna izango da lursaila garbi mantentzea eta horretarako Udalak prestatu dituen edukiontzietan edo dagokien espazioetan utzi beharko dituzte baratzeetako laborantzetan izandako hondakinak eta soberakinak.

Baratzeen erabiltzaileek izango dira konpostajeko arlo komunitarioa txandakatze egutegiaren arabera (baratzeen erabiltzaileen artean) kudeatzeko arduradunak. Konposta gauzatu ondoren, erabiltzaileen artean banatuko da. Ondoriozko konpostaren analitikak, gehienez 2 urtean, Dulantziko Udalak ordainduko ditu.

23. artikulua. Lurreko fruituen helburua

1. Erabiltzaileek luraren laborantzetatik eskuratzen diren fruituak biltzeko eskubidea izango dute, baina soilik erabili ahal izango dituzte euren kontsumorako edo euren familiarenerako.

2. Debekatuta dago erabiltzaileek aisialdirako baratze ekologikoetatik jasotzen dituzten baratzeetako produktuak saltzea, baita horien trafiko juridiko komertziala eragingo lukeen eragiketa komertzialik ere.

24. artikulua. Mantentze eta finantzazio gastuak

1. Baratzearen erabiltzaileek lizentziaren indarraldiaren bitartean baratzearen laborantzak dakartzen gastuen kargu egin beharko du: ongarriak, landatutako landareak eta laborantzarako beharrezkoak diren gainerakoak, landaketa produkzioerako egokitasunez mantenduz eta dagozkion baldintza egokietan.

2. Erabiltzaileek ordaindu beharko dute Zuzenbideari jarraiki eta behar bezala justifikatuta egokitzen zaien karga oro (zerga, kanon, etab.), Udalak onartzen badu beharrezkoa dela baratzen erabilerak edo erabiltzaileen komunitateak eragindako kostuak ordaintzeko.

3. Udalak baratzearen landaketagatiko tasa aplikatuko du, bai eta udal herri jabariaren espazioa egoki erabiltzeagatiko fidantza ere, araudian ezartzen diren zenbatekoen arabera.

25. artikulua. Ingurumen hezkuntza

1. Baratze ekologikoen erabiltzaileek lagapen aldiaren hasieran Dulantziko Udalak sustatutako nekazaritza ekologikoko eta konposteko ikastaro batera joan beharko dute; bertan, lagatako lurzatiatarako oinarritzko ezagutzak emango dira. Nahitaez hartu beharko dute parte ikastaro horretan baratzeen esleipendunek. Arrazoi nahikorik izan ez eta parte hartzen ez badute, kendu egingo zaie esleitutakoa.

2. Aisiarako baratze ekologikoak kolektibo eta partikularretarako antolatutako hezkuntza bisitetarako erabili ahalko dira, horietan garatutako jardueren berri emateko eta nekazaritza tradizionalari eta ekologikoari buruzko balioak sustatu ahal izateko.

3. Horretarako, baratzeetako erabiltzaileek, horiek irekitzeko ordutegietan, sarbidea eman beharko diete Udalak antolatutako bisiten barruan dauden taldeei.

4. Kasu horietan, erabiltzaileak lagundu beharko die ikasleekin azaldutako pertsona edo irakasleei, posible duen neurrian eta baratzeako bisitak irauten duen bitartean, bisitan etorritako taldeei azal dakien zein diren laborantzen teknikak eta ezaugarriak fase bakoitzean: lurraren prestakuntza, ongarriztatzea, landaketa, ureztatzea, jorraia, izurrien garbiketa, bilketa eta hondakinen kanporaketa.

5. Era berean, erabiltzaileek lurrari eta naturari lotutako balioak transmititu ahal izango dituzte, eurek laborantza metodoei buruz dituzten ezagutzak emanez: erabilitako espezieak zein ikasleen nekazaritza tradizional eta ekologikoarekiko zehazki eta ingurumenarekiko oro har interesa piz dezakeen beste edozein datu, belaunaldien arteko erlazioak sustatuz.

26. artikulua. Erabiltzaile izaeraren galera

1. Araudi honetan ezarritako ez betetzeak aisialdirako baratze ekologikoen erabiltzaile izaera galtzea eragingo du eta horren ondorioz, baratzearen erabilera eskubidearen eta baimenaren, eta ordura arte izandako erabilera komun bereziaren eskubidearen galera ekarriko du.

2. Bereziki erabiltzaile izaera galarazten dute honakoek:

a) Dulantziko Udalak sustatutako nekazaritza ekologikoko eta konposteko hasierako ikastarora ez bertaratzeak, kausa justifikatu eta frogatu gabe.

b) Eskubideari uko egiteak edo bertan behera uzteak, baratzearen erabileraren onuradunak Udalean aurkeztuta.

c) Hiltzeak edo baratze berezko lanak garatzea saihesten duen gaixotasunen bat izatea erabiltzaileak.

d) Erroldatzearen galerak, edo iraunkortasunez ez bizitzeak udalerriko etxebizitza batean, benetan eta eraginkortasunez, lizentziaren indarraldiaren epearen bitartean.

e) Lursailaren laborantza edo erabilera bertan behera uzteak, hilabete baino gehiagoz.

f) Esleipena eragin zuten beste edozein zirkunstantzia desagertzeak.

g) Araudi honetan aipatzen diren bateraezintasun edo debekuen konkurrentziak.

h) Baratzea erabiltzeak arautegi honetan ezarritako beste erabilera eta helburu batzuetarako.

i) Udalak edo beste Herri Administrazio batek hirigintza edo azpiegitura planen bat onartzeak, aisialdirako baratze ekologikoen lurretan zuzkidura publiko bat ezartzea eragingo lukeena. Kasu horietan, aipatutako Planaren onarpenak gizarte intereseko edo erabilera publikoko aitortpen bat izango du, eskatzen diren lursailen erabilerarentzako tituluen balioa indargabetuko duena.

j) Bizikidetzeta, auzokidetzeta edo elkartasunik gabeko jarreraren inguruko oinarrizko arauak ez betetzeak beste erabiltzaileei dagokienez.

k) Huts egite arin, larri edo oso larriengatik isun bat jartzeak, lizentzia galtzea eragingo lukeena beti.

27. artikulua. Lizentzia kentzeko prozedura eta erabiltzaile izaeraren galera

1. Erabiltzailea izateko eskubidearen galera Udalak kudeatuko du lizentzia kentzeko prozedura batean; erabiltzaileari lizentzia kentzeko motiboak azalduko zaizkio eta 10 eguneko epea izango du alegazioak aurkezteko. Ondoren, espedientea behin betiko ebatziko da.

2. Erabiltzailea izateko eskubidearen galerak ez du inola ere kalte ordainen bat jasotzeko aukerarik emango, ezta ordaindutakoa itzultzeko eskubiderik ere, eta fidantzaren gelditzea dakar ere, Udalari eragindako gastu eta kalteak ordaintzeaz gain, baratzea itxaron zerrendako hurrengo eskatzaileari esleitu ahal izango zaiola.

II. Titulua Erantzukizun araubidea

28. artikulua. Baratzearen laborantzarengatiko erantzukizuna

Baratzeen erabiltzaile bakoitzak erabilera lagapenari dagokion baratzearen gaineko jardueren erantzukizuna izango du. Erabiltzaileak lizentzia eskaera egiterakoan Araudi honen erabateko ezagutzarekin suposatu egiten da baratzeak erabiltzeko lizentziaren adjudikaziodunak guztiz onartzen dituela hemen ezarritako arauak; hortaz, laborantzatik eta erabileratik eratorritako erantzukizuna onartu beharko du ezinbestean, araudi honetan ezarritako parametroetan eta bereziki bere erantzukizun indibiduala onartuz honako hauetan:

1. Laborantzaren prozesuan, Udala ez baita laborantza prozesuaren eragin edo emaitzen erantzulea, bereziki lurraren egoeraren kasuan edo lurraren gaitasun ekoizlearenean.

2. Lurraren laborantza motan, Udalak ez baitu lanabesen erabileraren gaineko erantzukizuna, ezta horien erabilerak erabiltzailearen osasunean edo osotasun fisikoan duen eraginarena ere.

3. Baratzeko lapurreta, kalte edo ekintza bandalikoetan, eta erabiltzaileak gordetako edo bildutako produktu, fruitu edo lanabesetan; ezingo dizkio erantzukizun horiek Udalari egotzi inola ere.

4. Animaliek baratzean edo landutako produktuetan eragin ditzaketen kalteen kasuan.

5. Baratzean bildutako produktuen erabiltzailearen, besteen edo kontsumitzaileen osasunean izan dezaketen eraginean.

6. Erabiltzaileak Udalari jakinarazi beharko dio kalterik edo akatsik antzemanaz gero lagatako berezko edo besteen baratze edo instalazioetan.

29. artikulua. Erantzukizunak hirugarrenen aurrean

1. Erabiltzaileen erantzukizuna bera izango da hirugarrenei egindako kalteen kasuan, izan zein ez beste aisialdirako baratze ekologikoetako erabiltzaileak, eta aisialdirako baratze ekologikoen erabilera eta aprobetxamenduaren gauzapenean gertatu direnak.

2. Era berean, beste erabiltzaileei edo bere baratzetan eragindako kalte edo lesioen erantzuleak izango dira.

3. Behar bezala jardun beharko da edozein kalte, eragozpen edo lesio saihesteko gainerako baratzeetako erabiltzaileengan zein baratzeetan eurretan.

30. artikulua. Udalari eman beharreko kalte ordainak

1. Erabiltzaileek hirugarrenei edo hirugarrenen ondasunei euren baratzeen laborantzarengatik eragindako erantzukizunen arabera, erabiltzaileek kaltetuaren aurrean erantzun beharko dute derrigorrez, eragindako kalte edo lesioen ordaina emanez.

2. Udalak erabiltzeko lagatzen dituen instalazioei edo baratzari eragindako kalteengatik sortuko balitz erantzukizun hori, Udalak dagokin kalte-ordaina eskatzeko eskubidea erabiliko du, aplikagarria den zuzenbide administratiboaren arauetara jarraiki.

31. artikulua. Hasierako egoerara itzultzea

1. Baratzeak adjudikaziodunari laga zitzaizkioneko baldintza analogoetan itzuliko dira, lurra kanpoko ekarpenengatik nabarmen aldatua izan gabe.

2. Baratzeen gaineko erabileraren titularrek, instalazioak narriatzearen kasuetan, eguneroko erabilerak eragindakotik harago doanetan, gauzak hasierako egoerara itzuli edo konpondu beharko dituzte.

3. Erabiltzaile batek ez balu beteko gauzak konpontzeko betebeharra, Udalak zuzenean egin ahal izango du, kostua hari egokituz, Administrazioak kasu horietarako dirua eskuratzeko dituen botereak erabiliz.

**III. Titulua
Diziplina araubidea****32. artikulua. Arau orokorrak**

1. Aisialdirako baratze ekologikoen erabiltzaileek Araudi honetan ezarritako guztia bete beharko dute eta hemen aurreikusi ez diren kasuetan tokiko erakundeen ondasunen gaineko araudia bete beharko dute.

2. Araudi honek ezarritakoaren aurkako edozein jarrera arau hauste gisa tipifikatuta dago eta Udalak zigortu egingo du.

3. Erabiltzaileek aisialdirako baratze ekologikoak kokatzen diren eskatutako instalazio edo lursailetan kalterik eragiten badute, dolo, erru, zabarkeria edo besterik gabe ez jabetzeagatik, edo aurka egiten badiote baratzeen xede nagusiari edo euren araudiari, bide administratibotik zigortuko dira, isun bidez, Araudi honetan jasotako baldintzetan.

4. Zigorren kopuruaren graduazio eta zehaztapena irizpide hauen arabera egingo da:

a) Eragindako kaltearen kopurua.

b) Arau hausleak jasotako onura.

c) Nahita edo nahi gabe egin den.

d) Izaera bereko arau hauste bat edo gehiago egitea urte bateko epean, ebazpen finkoen bitartez adierazi direnean.

5. Arau hausleak izandako etekina baino txikiagoa denean isunaren zenbatekoa, isunaren kopurua igo egingo da etekinaren kopurua parekatzeraino, eta gehienez eragindako kaltearen bikoitzeraino igo ahal izango da.

6. Erabiltzaileen erantzukizuna nagusia edo zuzeneko izan ahalko da, baldin eta eurak badiara arau haustearen egileak, edo zeharkakoa, ekintzen egilea instalazioetatik kanpoko norbait denean eta erabiltzailearen zabarkeriak ahalbidetu dituenek ekintza horiek, sartzeari debekatuta zuten hirugarrenei sartzeari debekatuta.

33. artikulua. Ikuskaritza

1. Udalak hautatutako pertsonalak lagatuko instalazioen gaineko ikuskapenak egin ahal izango ditu, nekazaritza jarduerarako ezarritako ordutegien barruan. Pertsonal horrek agintari izaera izango du ikuskapena egiten ari den bitartean.

Era berean, alkateak eta eskumen materiala duen zinegotzien ordezkariak xede eta funtzio berdinak izango dituzte.

2. Aisialdirako baratze ekologikoen erabiltzaileek aurretik aipatutako pertsonari baratzeetarako sarbidea erraztu beharko diete, baita haiek eskatzen dieten informazio guztia eman ere, aisialdirako baratze ekologikoetan egindako laborantzaren erabilera, aprobetxamendua eta kudeaketa behar bezala jarraitzeko.

34. artikulua. Arau hausteak

1. Jarrera arau hausletzat joko da baratzeetako erabiltzaileek zein kanpoko pertsonaren batek izandako jarrera oro, baldin eta Araudi honetan edo aplikatu daitezkeen beste edozein arauditan (Araudi honetan jasotzen baldin bada beste araudi hori ezinbestean bete behar dela) esandakoaren aurka egiten badu.

2. Arau hausteak arinak, larriak eta oso larriak kategorietan kalifikatuko dira, jarrera arau hauslearen edo instalazio eragindako kalteen intentsitatea edo erruaren mailaren arabera.

3. Zehazki eta aurrekoari kalterik egin gabe, honako jarrerak arau hauste arintzat joko dira::

a) Araudi honetan xedatutako baldintzetan baratzerako bereziki egokiak diren barazki espezieak ez landatzea edo lantzea baratzeetan.

b) Instalazioetara sartzen uztea kanpokoak diren pertsonak, familiako kideak, erabiltzailea tarteka laguntzen dutenak, ikasleak edo baimendutako pertsonala salbu.

c) Baratzeetan animaliak izatea.

d) Baratzeetan trakzio mekanikoko makineria edo ibilgailuak izatea.

e) Ez betetzea Udalak bere pertsonal teknikoaren bitartez emandako argibideak, baratzeen erabileraren inguruan.

f) Baratzeen erabiltzaileek izandako beste edozein jarrera, baldin eta Udalak baratzeen erabiltzaileei Araudi honetan ezarritako betebeharrak eta zereginen aurkakoa bada, eta ez baldin bada arau hauste larria edo oso larria.

4. Arau-hauste larritzat joko dira honako jarrerak:

a) Erabiltzeko lagatzen diren baratzeen mantentzea ez betetzea, baratzeak kaltetu edo narriatu diren kasuetan.

b) Lurzatian obrak edo aldaketak egitea, Udalak aldeztu aurretik baimendu ez baldin baditu.

c) Beste erabiltzaileek jasan beharko ez lituzketen eragozpenak sortzea.

d) Udalak baimendu gabe hirugarrenei baratzearen erabilera lagatzea.

e) Lurraren, zoruaren edo azpiko lurraren narriadura eragin lezaketzen espezieak edo landareak lantzea.

f) Baratzeetan onartzen ez diren barbakoa, biltegi edo bestelako elementuen instalazioa.

g) Belardiak edo baratzeetako laborantzaren hondarrak erretzea, edo aisialdirako baratze ekologikoen barruan edozein su mota piztea.

h) Bi huts egite arin edo gehiago biltzea urte beteko epean.

5. Arau hauste oso larritzat joko da honako edozein jardunbide:

a) Gainerako baratzeetako kideei eragindako lesioak, edozein erabiltzailek edo harekin izandako besteren batek egindako ekintzek eraginda.

b) Zoruko kutsadura sorraraztea.

c) Beste nekazarien baratze erabileraren edo aprobetxamenduaren garapen arrunta saihestea.

d) Baratzeen funtzionamendu arrunta saihestea edo eragozte.

e) Lagatzen diren instalazioak edo/eta lursaila bera larriki narriatzea.

f) Landatzea, ereitea, biltzea edo izatea debekatuta dauden landare exotiko edo psikotropikoak ekoiztea.

g) Aisialdi baratze ekologikoen ustiapenak emandako produktuak komertzializatzea.

h) Nortasun, adin edo baratzeen erabilera esleitzeko garrantzitsua den beste daturen bat faltsutzea, edo nortasuna ordeztzea.

i) Bi huts-egite larri edo gehiago biltzea urte beteko epean.

6. Huts-egite ari, larri edo oso larririk egingo balu lizentziaren titularrak lizentzia kendu ahal izango zaio, ezartzen den zigorrari eragin gabe, hurrengo Artikuluan xedatutakoari jarraiki. Hura kentzeak ez dio erabiltzaileari kalte ordainak jasotzeko aukerarik emango.

Lehenago esandakoari kalterik egin gabe, erabiltzailearen batek izandako jarrerak delitua izateko izaera badu, gertakariak eskumena duten agintari judizialei jakinaraziko zaizkie, edozein direla ere erator litezkeen izaera penaleko erantzukizun posibleak. Edonola ere, Udalak salatuko ditu kaltetu dezaketen ekintza penal, zibil eta administratibo guztiak.

35. artikulua. Zehapenak

1. Egokitzen diren zehapenen kopurua ezarri eta erabakitzeko, Araudi honetan jasotako graduazio irizpideak erabiliko dira.

2. Arau hauste arinak, 60 eta 300 euro bitarteko isunekin zigortuko dira.

3. Arau hauste larriak, 301 eta 1000 euro bitarteko isunekin zigortuko dira.

4. Arau hauste oso larriak, 1001 eta 3000 euro bitarteko isunekin zigortuko dira.

5. Aisialdirako baratze ekologikoen instalazioetan kalteak eragin izanez gero, erantzukizuna duen erabiltzaileak gauzak hasierako egoeran bezala ezarri beharko ditu berriz, eragindako kaltea konponduz.

6. Lizentzia kentzea, aurreko artikulua seigarren atalean aurreikusiarri jarraiki, ez da zigortzailatzat joko.

36. artikulua. Zehatzeko eskumena duten agintariak

1. Zigor horiek jartzeko eskumena alkate/presidenteari dagokio.

2. Edonola ere, alkateak tokiko beste organo bati delegatu ahalko dio gaitasun zigortzailea, tokiko jardunbideen legeari jarraiki.

37. Artikulua. Prozedura zigortzailea.

1. Arau hausleei zehapenak ezartzen bazaizkie, zehapen prozedura ireki eta izapidetu beharko da, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehapen ahalaren otsailaren 20ko 2/1998 Legean aurreikusitakoari jarraiki.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea

Araudi hau indarrean jarriko da ALHAO aldizkarian behin betiko onespena argitaratzen den unean.

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Dulantzi, 2019ko abuztuaren 5a

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA